



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 16a

18. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa sustatzeko politika aktiboak balia ditzan. Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeak onetsia (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da talentua itzularazteko politika bat jar dezan abian, beren lanbidea Nafarroatik kanpo garatzera behartuta suertatu diren gazteentzat. Garapen Ekonomikorako Batzordeak bazter utzia (3. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, euskaraz irakasten duten eremu ez-euskalduneko ikastetxe itunduetako ikasleentzat garraiorako edo jantokirako laguntzak edo diru-laguntzak ezartzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko burutzen ebaluazioari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laguntza-burutzetarako onetsitako lanpostuen deialdiari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (5. or.).
- Galdera, egun pribatizatuta dauden zerbitzuak kudeaketa publikorako berreskuratzeaz Osasun Departamentuak daukan asmoari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren 2015eko aurrekontuan izandako desbideratzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Siemens-ek Gamesa erosteko aukerari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Ogasuneko teknikarien lanpostu-kopurua handitzeko lan-eskaintza publikoari dagokionez aurreko gobernuak egindako jarduketari buruzkoa. Fátima Andreo Vázquez andreak egin du (7. or.).
- Galdera, osasungintzako langileek jarduneko zerbitzuetan segitzeko eskabideei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (8. or.).

- Galdera, iragan otsailaren 6ko prozesio faltsuari buruzkoa, zeinean mozorrotutako pertsona batzuek paso bat baitzeramaten, Ama Birjina Doloreetakoaren irudia imitatzen zuena. Iñaki Iriarte López jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako eremu ez-euskaldunean D ereduaren ezartzearen kostuari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, ETaren indarkeria terrorista gaitzetsi eta baldintzarik gabe desegitea exijitze aldera Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako adierazpen instituzionalaren proposamena bozkatzean Geroa Bai parlamentu-taldeak emandako aurkako botoari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Gamesak Foru Komunitateko bere jarduerari euts diezaion Nafarroako Gobernuak aurreikusitako neurriari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publikoetan hizkuntza ereduak elkarrekin egotea ahalbidetuko duen ala bereiz daitezten utziko duen. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Sarrigurengo eskolako D ereduko gurasoek A eta D ereduak eraikuntza banatan antolatze aldera egindako eskariari buruzkoa. María Esther Korres Bengoetxea andreak egin du (12. or.).
- Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko osasun-prestazioak antolatzen dituen foru dekretuari buruzkoa. María Luisa de Simón Caballero andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Zerga Iruzzurren aurka Borrokatzeko 2014-2017 aldirako Plana dela-eta 2014an egindakoaren balorazioei eta iazko lehen hiruhilekoan hartu beharko ziren neurriari buruzkoa. Fátima Andreo Vázquez andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Garraioaren Hiriaren jabeei kalte-ordain gisa ordaindu beharreko 48,3 milioi euroko zorrari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legea aldatzeko, ehiza-barrutiek ehizazaina izan dezaten nahitaez. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (15. or.).
- Galdera, itxarote-zerrendek gora egiteko joera zuzentze aldera Osasuneko kontseilariak aurreikusi dituen neurriari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, jakitekoa zertan den Nafarroako Gobernua indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat etxebizitza bermatzeko plan bat presta zezan premiatzen zuen erabakia. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (16. or.).
- Galdera, 2016rako iragarritako lan-eskaintza publikoaren maisu-lanpostuei buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).
- Galdera, FITUR 2016ren ediziorako aurreikusi diren ekintzei eta haiek izanen duten kostuari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).
- Galdera, 2016-2017 ikasturtean Ingelesez Ikasteko Programari buruzkoa. Galdera erretiratzea (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileei 2012ko aparteko soldata ordaintzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (18. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa sustatzeko politika aktiboak balia ditzan.**

*KULTURA, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2016ko urtarrilaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da irakurketa sustatzeko politika aktiboak balia ditzan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du irakurketa sustatzeko politika aktiboak egin ditzan. Horretarako, Liburutegi Publi-

koen Sarea bultzatu eta egokituko du, liburutegiak ikastetxeekin lanean eta lankidetzan arituz, erosketa berriak egiteko aurrekontua handituko du, gutxienez ere orain dela lau urteko mailaraino, eta bermatuko du liburutegi guztiek egoki funtzionatzeko behar adina langile kualifikatu izatea –32/2002 Foru Legearen 25. artikulua betetzeko–, irakurketa klubei laguntza emanen die eta formatuak eskaera digital berrietara eta teknologia berrietara egokituko ditu.”

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da talentua itzularazteko politika bat jar dezan abian, beren lanbidea Nafarroatik kanpo garatzera behartuta suertatu diren gazteentzat.**

*GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da talentua itzularazteko politika bat jar dezan abian, beren lanbidea Nafarroatik kanpo garatzera behartuta suertatu diren gazteentzat.

Legebiltzarreko Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2016ko otsailaren 10ean egindako bilku-

ran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzeari. Mozio hori 2015eko urriaren 30eko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, euskaraz irakasten duten eremu ez-euskalduneko ikastetxe itunduetako ikasleentzat garraiorako edo jantokirako laguntzak edo diru-laguntzak ezartzeari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, euskaraz irakasten duten eremu ez-euskalduneko ikastetxe itunduetako ikasleentzat garraiorako edo jantokirako laguntzak edo diru-laguntzak ezartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak garraiorako edo jantokirako laguntzarik edo diru-laguntzarik ezarri al du euskaraz irakasten duten eremu ez-euskalduneko ikastetxe itunduetako ikasleentzat?

Corellan, 2016ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

**Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko burutzen ebaluazioari buruzkoa.**

*BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleguneko burutzen ebaluazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Nola aurreikusi da konpontzea orain dela 6 urte baino lehenagotik beteta dauden Nafarroako Ospitaleguneko burutzen ebaluazioaren auzia?

Iruñean, 2016ko otsailaren 5ean.

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

## **Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laguntza-burutzetarako onetsitako lanpostuen deialdiari buruzkoa.**

*BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ospitaleguneko laguntza-burutzetarako onetsitako lanpostuen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Begoña Ganuza Bernaolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noiz egingen da Nafarroako Ospitaleguneko laguntza-burutzetarako onetsitako lanpostuen deialdia?

Iruñean, 2016ko otsailaren 5ean.

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

## **Galdera, egun pribatizatuta dauden zerbitzuak kudeaketa publikorako berreskuratzeaz Osasun Departamentuak daukan asmoari buruzkoa.**

*KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, egun pribatizatuta dauden zerbitzuak kudeaketa publikorako berreskuratzeaz Osasun Departamentuak daukan asmoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Programa-akordioan apustu garbia egiten da egun pribatizatuta dauden zerbitzuak kudeaketa publikorako berreskuratze aldera. Hori dela-eta, honako galdera hau egiten dugu:

Osasun Departamentuak zer aurreikuspen egiten du horri dagokionez?

Iruñean, 2016ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

## **Galdera, Osasun Departamentuaren 2015eko aurrekontuan izandako desbideratzeari buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuaren 2015eko aurrekontuan izandako desbideratzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da Osasun Departamentuaren aurrekontuak 2015ean izandako desbideratzea? Zer kontusailetan gertatu da, C hepatitiserako farmakoen kontusaila albo batera utzita?

Iruñean, 2016ko otsailaren 5ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Galdera, Siemens-ek Gamesa erosteko aukerari buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako galdera, Siemens-ek Gamesa erosteko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

– Zer deritzozue Siemens-ek Gamesa erosteko aukerari? Zer ekimen abiaraziko duzue, baldin eta erosketa gauzatzen bada, Gamesako lanpostuak eta hornitzaileak berma daitezten?

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, Ogasuneko teknikarien lanpostu-kopurua handitzeko lan-eskaintza publikoari dagokionez aurreko gobernuak egindako jarduketei buruzkoa.**

*FÁTIMA ANDREO VÁZQUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Fátima Andreo Vázquez andreak aurkeztutako galdera, Ogasuneko teknikarien lanpostu-kopurua handitzeko lan-eskaintza publikoari dagokionez aurreko gobernuak egindako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fátima Andreo Vázquez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xeda-

tuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Nafarroara aldaketa ekartze aldera beste hiru indarrekin sinatu genuen programa-akordioan jasotzen da, iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko jarduerak areagotzeko xedez, iruzur fiskalean espezializatutako giza baliabideak nabarmen handitzea. Izan ere, kezkatuta gaude aurreko gobernuen kudeaketaren ondorioz arlo horretan gerta litekeen langile-eskasiagatik.

Hartara, jakin nahiko genuke, garai hartako Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak Ogasuneko teknikarien lanpostu-kopurua handitzeko lan-eskaintza publikoari buruzko galdera bati 2013ko irailaren 25ean emandako erantzuna gogoan, ea aurreko gobernuak zer jarduketa egin zituen erantzun horren arabera aurki egitekoak zirenetatik, bai eta zer emaitza lortu ziren ere.

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Fátima Andreo Vázquez

## **Galdera, osasungintzako langileek jarduneko zerbitzuetan segitzeko eskabideei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, osasungintzako langileek jarduneko zerbitzuetan segitzeko eskabideei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu taldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legearen

12. artikulua bidez, 2016. urtera luzatu dira Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, hots, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1., 5. eta 8. artikuluetan aurreikusitakoak.

Foru lege horretan jasotzen denez, Nafarroako administrazio publikoek ahalmena izanen dute, salbuespen gisa, egoera batzuk luzatzeko baimena emateko, zerbitzu publikoak behar bezala emateko ezinbestekoa bada langile jakin batzuek jarduneko zerbitzuan segitzea aldi jakin batean, eta betiere, hirurogeita hamar urte bete arte. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileei dago kienez, baimen berezi hori Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez emanen da.

Osasungintzako funtzionarioen zenbat baimen eskatu dira salbuespeneko izaeraz? Zenbat baimen eman dira Gobernuaren erabaki bidez? Zer irizpide baliatu da osasungintzako langile horiek jarduneko zerbitzuetan segitzea baimentzeko edo, kasua bada, ez baimentzeko?

Corellan, 2016ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera



## **Galdera, iragan otsailaren 6ko prozesio faltsuari buruzkoa, zeinean mozorrotutako pertsona batzuek paso bat baitzeramaten, Ama Birjina Doloreetakoaren irudia imitatzen zuena.**

*IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako galdera, iragan otsailaren 6ko prozesio faltsuari buruzkoa, zeinean mozorrotutako pertsona batzuek paso bat baitzeramaten, Ama Birjina Doloreetakoaren irudia imitatzen zuena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoe-

tan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Iragan otsailaren 6an, sasiprozesio bat egin zen Iruñeko Alde Zaharrean, zeinean mozorrotutako dozena bat pertsonak paso bat baitzeramaten, Ama Birjina Doloreetakoaren irudia imitatzen zuena, zeinari burlazko maskara bat jarri baitzioten.

– Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak zer balorazio egiten du getakari horiei buruz?

– Programa-akordioan aipatzen den “Elkarbizitzaren Nafarroari” eraso egitea dela uste al duzu?

– Aurreikusita al duzu horiekiko arbuioa adieraztea, Nafarroako erkidego katolikoarekiko elkartasuna adieraztea eta egileak publikoki premiatzea erlijio-sinesmen eta -sinbolo guztiak errespetatzen dituzten?

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

## **Galdera, Nafarroako eremu ez-euskaldunean D eredia ezartzearen kostuari buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako eremu ez-euskaldunean D eredia ezartzearen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da Nafarroako eremu ez-euskaldunean D eredia ezartzearen kostua?

Iruñean, 2016ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

**Galdera, ETaren indarkeria terrorista gaitzetsi eta baldintzarik gabe desegitea exijitze aldera Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-  
teak aurkeztutako adierazpen instituzionalaren proposamena bozka-  
tzean Geroa Bai parlamentu-taldeak emandako aurkako botoari  
buruzkoa.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, ETaren indarkeria terrorista gaitzetsi eta baldintzarik gabe desegitea exijitze aldera Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-  
teak aurkeztutako adierazpen instituzionalaren proposamena bozkatzean Geroa Bai parlamentu-taldeak emandako aurkako botoari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Geroa Baik aurkako botoa eman zion Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-  
teak aurkeztu eta otsailaren 8ko Eledunen Batzarrean izapidetu zen adierazpen instituzionalari, zeinak honako hau jasotzen baitzuen: "Nafarroako Parlamentuak bipil eta berariaz gaitzesten du ETAK gauzatutako indarkeria terrorista, eta baldintzarik gabe desegin dadila exijitzen du". Hori ikusita, honako hau galdetzen da:

Gobernuko lehendakaria eta Geroa Bairen ordezkari nagusia zaren aldetik, nola justifikatzen duzu adierazpen instituzional horren aurkako botoa eman izana, are gehiago zuk esana denean "inork ere ez nau ezagutu ezein indarkeria motaren eta terrorismoaren aitzinean epelkeriatan"?

Iruñean, 2016ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, Gamesak Foru Komunitateko bere jarduerari euts diezaion Nafarroako Gobernuak aurreikusitako neurriei buruzkoa.**

*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Gamesak Foru Komunitateko bere jarduerari euts diezaion Nafarroako Gobernuak aurreikusitako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Azken egunotan, ziurgabetasuna eragin dute zenbait informaziok, esaten dutenak litekeena dela Siemens AG multinazionalak Gamesa erostea. Siemens AG Alemaniako multinazional bat da, egoitza Berlinen (Alemania) daukana, 400.000 pertsona baino gehiagoko plantillarekin eta 116.000 milioi euroko diru-sarrerekin, eta Gamesa Espainiako multinazional bat da, aerosorgailuen sektorekoa, egoitza Zamudion (Bizkaia) daukana, munduan zehar ia 8.000 langilez osatua eta 2.896 milioi euroko diru-sarrerekin.

Erosketa hori gauzatuz gero, Siemens Danimarkako Vestas enpresaren aurretik jarriko litzateke aerosorgailuen merkatu globalean. Egoitza Aarhus-en (Danimarka) daukan enpresa hori lehiakide gogorra da egun mundu mailan, haize-indarraren bidez elektrizitatea ekoizteko teknologian.

Nafarroak, bulego nagusien egoitza ez den arren, 1.500 langile inguru hartzen ditu –horietako asko, kualifikazio handiko teknikariak–, bai eta enpresa osagarriak eta zerbitzuetakoak ere, Gamesak gure Foru Komunitatean daukan zentro teknologikoaren eta bulegoen jardueratik hornitzen direnak.

Ikusita jokoan dauden enpresen tamaina, eta bereziki multinazional erraldoiarena, argi dago xurgatze batek eragiten duen kezka zalantzak sortzen dituela jardueraren eta enpleguaren mantentzeari buruz ez ezik talentuen balizko ihesari dagokionez ere, zeina gerta bailiteke gisako erosketetan eman den logikari jarraikiz, non nagusitu ohi baita Headquarters izenekoetara –edo egoitza nagusia– migratzea zuzendaritza eta berrikuntza-alderdia; kasu honetan, Berlinera.

Galderaren testua

Ikusita Gamesaren izaera estrategikoa eta gisa horretako mugimendu batek enplegarritasunari, talentuari eta berrikuntzari dagokienez izanen litzuzkeen ondorio negatiboak, Nafarroako Gobernuak zer neurri aurreikusi ditu Gamesak Foru Komunitatean duen jarduerari orain arteko termino beretan jarraitutasuna emateko?

Iruñean, 2016ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

## **Galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publikoetan hizkuntza ereduak elkarrekin egotea ahalbidetuko duen ala bereiz daitezen utziko duen.**

*CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa ea Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publikoetan hizkuntza ereduak elkarrekin egotea ahalbidetuko duen ala bereiz daitezen utziko duen.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Jakin badakigu Nafarroako Foru Komunitateko hainbat ikastetxe publikotan hezkuntza-komunitateek eskaerak aurkeztu dituztela, gaur egun hainbat hizkuntza-eredu eta hezkuntza-esperientzia batera daudenez horiek banatzeko aukerari lotuta daudenak. Horrenbestez, hizkuntza-ereduen arabera banatzeko edo bereizteko eskatu da.

Zirkunstantzia hori garrantzitsu bilakatu da Nafarroako hezkuntzari buruzko egungo eztabaidan, batez ere 2016-17 ikasturterako aurre-matrikulazio kanpainaren aurretik. Hori dela eta, beharrezkoa izanen litzateke jakitea Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak zein plangintza egin duen zirkunstantzia horri buruz eta zein den gaiari buruz daukan jarrera.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak onartuko al du ikastetxe publikoetan hizkuntza-ereduak eta hezkuntza-esperientziak batera egotea ala ikastetxe horiek hizkuntza-ereduen arabera banatzen edo bereizten lagunduko du?

Iruñean, 2016ko otsailaren 10ean

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **Galdera, Sarrigurengo eskolako D ereduak gurasoek A eta D ereduak eraikuntza banatan antolatze aldera egindako eskariari buruzkoa.**

*MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Sarrigurengo eskolako D eredu-

ko gurasoek A eta D ereduak eraikuntza banatan antolatze aldera egindako eskariari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Esther Korres Bengoetxea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako ahozko galdera hau aurkezten du, 2016ko otsailaren 18ko Osoko Bilkuran Jose Luis Mendoza Peña jaunak erantzun diezaion.

Sarrigurengo eskolako D ereduko gurasoek, murgiltze eredia bermatu nahian, A eta D ereduak eraikuntza banatan antolatu nahi dituztela adierazi dute behin baino gehiagotan. Horren harira, Hezkuntza Departamentuak hartu edo hartuko duen erabakia zein den jakin nahiko genuke.

Iruñean, 2016ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

---

**Galdera, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko osasun-prestazioak antolatzen dituen foru dekretuari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko osasun-prestazioak antolatzen dituen foru dekretuari buruzkoa.
  2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.
  3. Osoko Bilkuran izapidetzea.
- Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean  
Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Amaitu egin da sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen Foru Dekretuan parte hartzeko prozesua. Une honetan Osasun Departamentuari dago kio aurkeztu diren alegazioak hausnartzea.

Zenbat eta zein alegazio aurkeztu dira, eta horietatik zenbat gehitu dira dekretura? Zer-nolako aurreikuspena dauka Gobernuak, dekretua onetsi eta argitaratzeari dagokionez?

Iruñean, 2016ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, Zerga Iruzzurraren aurka Borrokatzeko 2014-2017 aldirako Plana dela-eta 2014an egindakoaren balorazioei eta iazko lehen hiruhilekoan hartu beharko ziren neurriei buruzkoa.**

*FÁTIMA ANDREO VÁZQUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Fátima Andreo Vázquez andreak aurkeztutako galdera, Zerga Iruzzurraren aurka Borrokatzeko 2014-2017 aldirako Plana dela-eta 2014an egindakoaren balorazioei eta iazko lehen hiruhilekoan hartu beharko ziren neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fátima Andreo Vázquez

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion

Iruzzur fiskalaren aurka borrokatzeko 2014-2017 Planean honako hau adierazi da:

“Urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoaren barnean aurreko urtean izandako emaitzak ebaluatuko dira, eta egin beharreko aldaketak proposatuko dira. Modu osagarrian baloratuko da izandako emaitza partzialak bat datozen azkenean kuantifikatu den zenbatekoarekin edo antolaketa egituran, giza baliabideen esleipenean edo baliabide materialen izakinetan aldaketarik egin behar den”

Gauzak horrela, 2014ko balorazioak jakin nahiago genituzke, baita horien arabera hartu ziren neurrien balorazioak ere, pasa den urteko lehenengo hiruhilekoan gauzatu behar zirenak.

Iruñean, 2016ko otsailaren 11n

Foru parlamentaria: Fátima Andreo Vázquez

## **Galdera, Garraioaren Hiriaren jabeei kalte-ordain gisa ordaindu beharreko 48,3 milioi euroko zorrari buruzkoa.**

*KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Garraioaren Hiriaren jabeei kalte-ordain gisa ordaindu beharreko 48,3 milioi euroko zorrari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan asteazkenean ikasi genuen Nafarroako Gobernuak 48,3 milioi euro ordaindu beharko dizkiela Garraioaren Hiriaren hirugarren eta laugarren faseetako jabeei, kalte-ordain gisa. Egoera hori heldu da, aurrena, aldean arteko negoziatorik ezagatik, eta hurrena, Nafarroako Auzitegi Nagusiak emandako ebazpen judizial batengatik.

Nafarroako Gobernuak lehendakari Uxue Barcos Berruezo andreak "herentzia pozoitu" eta Nafarroarentzako "arazo gehigarri" gisa kalifikatu zuen egoera hori, gainkostu bat ekarriko duelako hasierako aurreikuspenekin alderatuta.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari hauxe galdetzen diogu:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du egoera horri buruz?

Nafarroako Gobernuak zer urrats aurreikusi ditu, diru-kutxa publikoetarako galerak minimizatzen saiatzeko?

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

## **Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legea aldatzeko, ehiza-barrutiek ehizazaina izan dezaten nahitaez.**

### *MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legea aldatzeko, ehiza-barrutiek ehizazaina izan dezaten nahitaez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Gobernuak parlamentu honen hurrengo Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Ehizarekin eta gure mendien kontserbazioarekin eta zaintzarekin lotuta Nafarroako mendietan izandako beste gertakari batzuei gehitu zaizkie isilpeko ehiztarien azken atxiloketak, Mendabian egindakoak.

Nafarroako Gobernuaren ustez, Nafarroako ehiza-barrutietan zaintza izateko betebeharra kendu ostean, igo egin al da isilpeko edo/eta legez kanpoko ehiza edo/eta okertu egin al da Nafarroako habitaten oreka ekologikoa? Nafarroako Gobernuak ba al du Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko Foru Legea aldatzeko asmorik, ehiza-barrutiek ehizazaina izan dezaten nahitaez?

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean.

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, itxarote-zerrendek gora egiteko joera zuzentze aldera Osasuneko kontseilariak aurreikusi dituen neurriei buruzkoa.**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, itxarote-zerrendek gora egiteko joera zuzentze aldera Osasuneko kontseilariak aurreikusi dituen neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

UPN-Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak erantzun diezaion:

Ikusita Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxarote-zerrendek urtarrilean gora egiten jarraitu dutela, halako moduan non gorako joera mantentzen den azken hilabeteotan.

Osasuneko kontseilariak ba al du egoera zuzentzeko neurriak hartzeko asmorik?

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, jakitekoa zertan den Nafarroako Gobernuak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat etxebizitza bermatzeko plan bat presta zezan premiatzen zuen erabakia.**

*MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zertan den Nafarroako Gobernuak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat etxebizitza bermatzeko plan bat presta zezan premiatzen zuen erabakia.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak 2016ko otsailaren 18ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

2015eko urriaren 27ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialaren arabera, Osoko Bilkurak erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen etxebizitza bermatzeko plan bat presta dezan indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat. Zertan da hori?

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: María Teresa Sáez Barrao



## **Galdera, 2016rako iragarritako lan-eskaintza publikoaren maisu-lanpostuei buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera 2016rako iragarritako lan-eskaintza publikoaren maisu-lanpostuei

buruzkoa zen, eta 2015eko azaroaren 13ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, FITUR 2016ren ediziorako aurreikusi diren ekintzei eta haiek izanen duten kostuari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera FITUR 2016ren ediziorako aurreikusi diren ekintzei

eta haiek izanen duten kostuari buruzkoa zen, eta 2016ko urtarrilaren 19ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, 2016-2017 ikasturtean Ingelesez Ikasteko Programari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera 2016-2017 ikasturtean Ingelesez Ikasteko Programari buruz-

koa zen, eta 2015eko azaroaren 27ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileei 2012ko aparteko soldata ordaintzeari buruzkoa.**

### *GALDERA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela Sergio Sayas López jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Nafarroako Foru Komunitatearen zerbitzuko langileei 2012ko apar-

teko soldata ordaintzeari buruzkoa zen, eta 2015eko azaroaren 27ko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza



